



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 27a

61. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntza-ko ikastetxeekin, horietan matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako Parlamentuak onetsitako etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua arbuiatzen duela. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arbuia dezaten etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua eta atzeritarrentzako barnetegiak itxi ditzaten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, Adnan Hassanpour eta Hiwa Butivar kazetari kurduetako elkartasuna agertze-koa, heriotza-zigorra ezarri baitiete Irango Errepublikari Islamiarrean. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, gazteen elkarteei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Tuterako Horno de Coscolín izeneko inguruan higiezinek dituzten prezioei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako Parlamentuak onetsitako Donejakue Bidearen plan orokor eta integralaren eta kulturari buruzko turismo lehen plan zuzendariaren egutegiak betetzeko, Román Felones Morrás jaunak egina (9. or.).
- Galdera, arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokorra ez betetzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Nafarroako Zinearen Bulegoaren garapen-egoerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkariari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (11. or.).
- Galdera, plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihebidia eraikitzeko prozesua, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihebidia eraikitzeko prozesua buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).
- Galdera, “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpena, 2008ko ekainaren 11koa, erakunde honen zerbitzupeko langile funtzionarioen eta langile kontratatuen erosahalmena ordainsari osagarrien bidez euste aldera (16. or.).
- Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina (17. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, horietan matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, horietan matrikulatzean ikasleak sexuaren arabera bereizten badira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

**Zioen azalpena**

Auzitegi Gorenak epai bat eman du orain dela gutxi, zeinean adierazi baitu autonomi erkidegoek ukatu egiten ahal dizkietela dirulaguntzak ikastetxeei, baldin eta ikasleak generoaren arabera bereizten badituzte.

Nafarroako zenbait ikastetxetan generoaren arabera bereizten dira bigarren hezkuntzako ikasleak; lege esparruak, berriz, irakaskuntzan hezkidetza sistema baterantz joatea defenditzen du, hezkidetza delakoan sexuak eragindako bazterkeriak zuzentzeko eta genero-estereotipoak amaia-razteko bitarteko nagusia, estereotipo horiek, emakumeen aurkako indarkeria mota guztien atzean dauden neurrian, kalte handia egiten baitiote gizarteari.

**Erabaki proposamena:**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan itunik egin derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeekin, baldin eta horietan sartzeko matrikulan ikasleak sexuaren arabera bereizten badira.

Iruñean, 2008ko ekainaren 18an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako Parlamentuak onetsitako etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua arbuizten duela.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Europako Parlamentuak onetsitako etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua arbuizten duela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Ekainaren 18an, Europako Parlamentuak "Itzuleraren zuzentaraua" izeneko bozkatu eta onetsi zuen. Zuzentaraua Europar Batasun osorako legedia esparru komun bat harmonizatzeko saio gisa aurkeztu izan da.

Halere, zuzentarauak Europako herrialde askoko legedia okerragotzen du, eta oso latza da Europan immigrazioari buruzko erabaki horren lehen prozesua izatea paperik gabeko etorkinen aurkako errepresioarekin lotutako proiektu bat.

Europak –bere burua zibilizatutzat, giza esku-bideekiko, askatasunarekiko eta elkartasunarekiko begirunetsutzat daukan Europa horrek berak–onartu du Europako Parlamentuan bozkatzeko ofizialki "Itzuleraren zuzentaraua" deitzen dena, berez "Ahalkearen zuzentaraua" baizik ez dena.

Itzulerako zuzentarauak esparru bat ezartzen baitu paperik gabeko atzerritarrak atxilotzeko eta

kanporatzeko, eta bide ematen baitu etorkinak atxilotzeko eta 18 hilabetez atxikitzeko, epailearen erabakirik gabe, administrazio-agindu soil baten bidez.

Etorkinak atxikitzeko, hain zuzen ere, espetxe deitu beharko genituzkeen lekuetan, baldin eta ez bagenu atzerritarrentzako barnetegiak bezalako eufemismorik erabiliko; izan ere, barnetegi horiek bizimodu hobe bat bilatzen dutenen oinarritzko askatasunei eta duintasunari erasotzen diete.

Zuzentarauak gizakien beheko maila sortuko du, aukera egonen baita pertsona errugabe bat 18 hilabetez atxilotuta edukitzeko, administrazioaren erabaki hutsez eta esku-hartze judizialik gabe.

Ez da ez bidezkoa, ez zibilizatua, Europako Parlamentuak onetsi izana zuzentarau bat, onartu eta babesten duena Europar Batasuneko edozein herrialdek entregatu ahal izatea etorkin adingabeak senide zuzenak ez diren tutoreei eta sorterriratu ahal izatea adingabe horiek hirugarren herrialdeei.

Eta onartezina da Europako Parlamentuak debekatzea etorkinei Batasun osoan berriz sar daitezen, baldin eta deliturik egin gabe bere buruari demokraziaren Europa deitzen dion herrialde batetik kanporatuak izan badira.

Gaizkileak balira bezala tratatzen dira soldata ziztrin baten truke, eta kasu askotan inolako babesik gabe, bere lanaren bidez gure zenbait herrikide errespetagarri aberastu dituzten pertsonak.

Oso tristea da egiaztatzea Europako gizartearen amnesia eta ahanztura; izan ere, gizarte horietako herritar askok emigratu egin behar izan zuen orain dela ez asko, eta horiei ez zitzairen batere gustatuko gaizkileak izanen balira bezala hartu balituzte.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuizten duela Itzuleraren zuzentaraua, Europako Parlamentuak ekainaren 18an onetsia.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ez dezan sar Espainiako legedian Itzuleraren Europako zuzentaraua.

3. Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du immigrazioari buruzko beste zuzentarau bat presta dezan, Europa zibilizatuaren eta giza eskubideekiko, askatasunareki-

ko eta elkartasunarekiko begirunetsuaren ikusmoldean oinarriturik.

Iruñean, 2008ko ekainaren 19an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira arbuia dezaten etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua eta atzerritarrentzako barnetegiak itxi ditzaten.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira arbuia dezaten etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua eta atzerritarrentzako barnetegiak itxi ditzaten

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

MOC 97

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Duela gutxi, Europako Parlamentuak Europar Batasunaren (EB) zuzentarau bat onetsi du, estatu kideetan legez kanpo dauden hirugarren herrialdeetako etorkinak kanporatze aldera Estatu kide horietan ezarri beharreko prozedurei eta arauai buruzkoa.

Gure ustez, EBk etorkin irregularren itzulerari buruz garatu duen zuzentarau horrek –oraindik ere Europa mailan akordiorik lortu ez denean

immigratio politikaren alorrean– argi eta garbi adierazten du zein den Europar Batasunean dauden gobernuak duten benetako kezka immigratio politikari dagokionez: errepresio-neurriei lehentasuna ematea, neurri sozial eta integratzaileak hartu beharrean, munduan gertatzen den migrazioaren fenomeno naturalari aurre egiteko.

Dagoeneko erakunde askok salatu dute giza duintasuna eta giza eskubideak ez direla errespetatzen atzerritarrentzako barnetegietan. Hori horrela izanik ere, Europar Batasuna prest dago araudi hori onartzeko, zeinaren bidez pertsonak atxilotu ahal izanen diren 18 hilabetera hel daitekeen epe batez. Erabaki horrek larriagotu besterik ez du eginen halako zigorra jasotzeko moduko delituri egin ez duten pertsona horien giza sufrimendua. Araudi horren bidez neurri gabe berdintzen dira hutsegite administratibo bat dela-eta ezarritako zigorra eta delitu larriei dagokien askatasun galera. Horrez gain, ondoko ideia indartzen da Europako iritzi publikoarengan: dokumentaziorik gabe emigratzea delitua dela. Proiektu horrek logika ankerra inplikatzeko du: atzerritarrak atxilotzeko politika orokortzen bada, hori bihur liteke herri migratzaileak kudeatzeko bide normala.

Zuzentarau-proiektu horrek bost urteko debekua ezartzen die kanporatutako pertsona guztiei Europara berriro itzuli baino lehen; horrela, proiektu horrek administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinak estigmatizatzen ditu, eta baztertu beharreko gaizkile bihurtzen ditu.

Halaber, justifikaezina da atzerritar adingabeak atzerritarrentzako barnetegietan atxilotzeko iradokizuna; horrek urratzen du Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (1990), bai Espainiak bai Europar Batasuna osatzen duten gainerako herrialdeek berretsi zutena. Hitzarmen horren 37. artikuluan xedatzen da estatu kideek ondorengo

hauen alde lan eginen dutela: “a) Ezein hurrek ez du jasango tortura, pena, tratu krudel, anker edo degradatzaile... Haur baten atxiloketa, gartzelaratzeko edo espetxeratzea legeari jarraituz eginen da, eta espetxeratzea azken errekurtsoa izango da eta ahalik eta denbora gutxien iraungo du; c... Askatasunik ez duen haurra helduengandik urrun egongo da,”

Murrizketa horiek eta beste batzuek kontra egiten diete Pertsonaren Oinarrizko Eskubideei, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eta Europako Kontseiluko Lehendakariak 1999ko urriaren 15ean eta 16an Tamperen hartutako erabakien ondorioei –horietan adostu zen askatasunezko, segurtasunezko eta justiziazko espazioa sortuko zela komunitatekoak ez ziren atzerritarrentzat; izan ere, Europar Batasunaren eremua, baketsua eta oparoa, ezin da izan Europar Batasuneko biztanleena soilik. Espazio horrek, existitzeagatik bakarrik, munduko herritar asko erakartzen ditu-. Halaber, zuzentarau horrek kontra egiten dio Europar Batasunak 2007ko abenduaren 12an sinatutako Giza Eskubideen Gutunari. Bere 4. artikuluan dio inork ere ez duela jasanen tortura edo pena edo tratu

ankerrik edo degradatzaile, eta bere 49. artikuluan, berriz, zigorrak ezin izan direla desproporzionatuak izan arau-haustearekin.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentutaldea honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu-ko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premia-tzen ditu jarrera aktiboa izan dezaten etorkinen itzulerari buruzko zuzentaraua baztertzeko, zuzentarau hori haiek formalki behintzat dituzten printzipioen eta balioen urraketarik larrienetakoa baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu-ko Gobernu premia-tzen du agin dezan atzerritarrentzako barnetegiak ixtea, eta askatasuna kentzearen ordezkotako neurriak har ditzan, dagoeneko Atzerritarren Legeak jasotzen dituenak, eta benetako harrera-baliabideak sor ditzan gizarteratzea ahalbidetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Adierazpen instituzionala, Adnan Hassanpour eta Hiwa Butivar kazetari kurduetako elkartasuna agertzekoa, heriotza-zigorra ezarri baitiete Irango Errepublika Islamiarrean.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Joan den ekainaren 18an, Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzordearen lan bilera bat egin zen Adnan Hassanpour eta Hiwa Butimar kazetari kurduen senideekin, bi kazetari horiei heriotza-zigorra ezarri baitiete Irango Errepublika Islamiarrean. Idazki hau izenpetzen duten parlamentu-taldeek ondokoa adierazten dute:

1.- Layla Hassanpour eta Hadi Butimar-en eskutik –bi kazetari horien senideak– informazio zuzena jaso dutela kazetarien atxiloketari buruz eta heriotza-zigorra ezarri dien prozesu judizialari buruz.

2.- Kontuan hartzen dutela Adnan Hassanpour eta Hiwa Butimar beren kazetaritza jardura dela eta prozesatu dituztela eta heriotza-zigorra ezarri dietela.

3.- Ezagutzen dutela adierazpen askatasuna mugatua dela biztanleriaren gehiengoa kurdua den Irango eskualdean.

4.- Badakitela adierazpen askatasunik ez dagoela ez Irango eskualde honetan, ezta Errepublika Islamiarrearen gainerako eskualdeetan ere, eta kurduak ezin dutela beren kultura adierazi edo landu. Hori horrela,

### **ERABAKI DUTE:**

– Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Iranen heriotza-zigorra ezarri zaien bi kazetari horiei, eta bere babesa helarazten die beren senideei.

– Nafarroako Parlamentuak bat egiten du ondokoek heriotza-zigor horien aurka egindako eskariarekin: Amnesty International, Reporteros Sin Fronteras, PEN Club, Europar Batasuneko Lehendakariak eta Frantzia eta Italiako Kanpo Arazoetarako Ministerioak.

– Nafarroako Parlamentuak eskaria egiten die Irango agintariei bete ditzaten nazioarteko zuzenbidea errespetatze aldera onartu zituzten betekizunak, berma dezaten inor ez dela atxilotuko adierazpen askatasuna modu baketsuan gauzatzearagatik, eta bertan behera utz ditzaten bi heriotza-zigor horiek, heriotza-zigorra Irango legegintzik kentzeko lehen neurri gisa.

– Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuen Erakundeetan dagoen Espainiako ordezkariak premia-tzen du ebazpen hau igor diezaion Nazio Batuen Batzar Nagusiari.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2008ko ekainaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter eta balioets dezan bigarren hezkuntzako ikastetxeren batean arteetako batxilergoa jartzeko aukera, eta hezkuntza-plangintza bat gara dezan, arte eszenikoen, musikaren eta artearen alorreko prestakuntzari bide emate aldera.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, gazteen elkarteei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.***IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gazteen elkarteei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Gazteen elkarteei ematen zaizkien laguntzei buruzko galdera.

- Zer arrazoi daude hain mantso izapidetzeko, aurreko ekitaldiekin konparatuta, gazte elkarteentzako dirulaguntzak?

- Zenbat elkarteri eta jarduerari eragiten die atzerapen horrek?

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

**Galdera, Tuterako Horno de Coscolín izeneko inguruan higiezinak dituzten prezioei buruzkoa.***ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Horno de Coscolín izeneko inguruan higiezinak dituzten prezioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2008ko martxoaren 13ko Osoko Bilkuran, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak berretsi zigun hasia dela Tuterako "Horno de Coscolín" izeneko eremua zaharberritzeko bigarren fasea.

Kontseilariak ondokoa adierazi zuen erantzunean: "Departamentuak aurriak erostera joan behar

du, eta hala egin ahalko du, baldin eta aurriak eskueran baditu, baina aurriak Manhattango lurzati baten prezioan baldin badaude, zaila izanen da."

Bizi dugun desazelerazio ekonomiko eta hedabideetan azaltzen diren datuak ikusita, badi-rudi jaisten ari dela higiezinaren prezioa. Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erosi beharreko aurriak, eskueran jarri al dira eta horrenbestez eremua garatzeko jarduketak egin ahalko dira, ala Manhattango lurzati baten prezioan daude?

Iruñean, 2008ko ekainaren 13an.

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako Parlamentuak onetsitako Donejakue Bidearen plan orokor eta integralaren eta kulturari buruzko turismo lehen plan zuzendariaren egutegiak betetzeko.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako Parlamentuak onetsitako Donejakue Bidearen plan orokor eta integralaren eta kulturari buruzko turismo lehen plan zuzendariaren egutegiak betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

2008ko martxoaren 6an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialak argitara eman zituen Legebiltzarreko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako bi mozio, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen zen Donejakue Bideari buruzko plan orokor eta integral bat gara dezan eta kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan.

Lehenari dagokionez, Legebiltzarrak lau hila-beteko epea ezarri zuen, eta bigarrenari dagokio-nez, berri, sei hilabetekoa.

Ikusita Arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokorraren eta Nafarroako Zinearen Bulegoaren aurrekariak, non ez baitzen agindutakoa bete, eta 2009ko aurrekontuei begira ekimen berriak aurreikusitako behar ditugunez, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako egutegia betetzeko? Asmorik ez baldin badu, zergatik gertatu da atzerapena? Zer data darabilzue gutxi gorabehera?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokorra ez betetzeari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokorra ez betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásék, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

2007ko abenduaren 21ean, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen aho batez, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Arte garaikidea sustatu eta garatzeko plan orokorra presta zezan.

Mozio hartan lau hilabeteko epea ezarri zen, plan hori prestatu eta igortzeko. Plana aurkezteko epea luzaz gaindituta, eta plan hori eman gabe dagoenez, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

Zergatik ez da bete Nafarroako Parlamentuak aipatu plana prestatu, igorri eta emateko emandako epea? Zertan da aipatu planaren prestatzea? Departamentuak noiz du aipatu plana Legebiltzarrean igortzeko asmoa, gutxi gorabehera?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Nafarroako Zinearen Bulegoaren garapen-egoerari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zinearen Bulegoaren garapen-egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásék, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

2008ko martxoaren 6an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen Legebiltzarreko Osoko Bilkurak aho batez onetsitako mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Nafarroako Zinearen Bulegoa gara zezan.

Mozio hartan, hiru hilabeteko epea ezarri zen aipatu bulegoari buruzko ekimena prestatu eta igortzeko. Aurreikusitako epea agortuta ekimena Legebiltzarrera igorri gabe, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

Zergatik ez da bete Nafarroako Parlamentuak aipatu Nafarroako Zinearen Bulegoari buruz-

ko ekimena prestatu, igorri eta emateko emandako epea? Zertan da aipatu ekimenaren prestatzea? Departamentuak noiz du aipatu jarduketara Legebiltzarrera igortzeko asmoa, gutxi gorabehera?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkarietarako buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkarietarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Erruki Etxeari buruzko galdera

- Tuterako Erruki Etxea kudeatzen duen fundazioko batzordean, zenbat ordezkari dago? Nola banatzen dira?

- Nafarroako Gobernuak zergatik ez ditu oraindik zehaztu bere bi ordezkarien izenak?

- Nafarroako Gobernuaren ordezkariak noizdik ez dira joaten fundazioko batzordearen bilera horietara?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza departamentuari. idatziz erantzun diezazkion:

Lehena.- 2001etik gaur arte zenbatean haunditu da Nafarroako Gobernuaren plantilla?

Bigarrena.- Hauen artean, lanpostu berrietako zenbati eta zeini eskatu zaio euskara jakitea?

Hirugarrena.- Zenbati eta zeini baloratu zaie euskara jakitea merezimendu gisa Nafarroako hizkuntza eremu desberdinetan?

Iruñean, 2008ko ekainaren 16a

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihebidia eraikitzekeo prozesua.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihebidia eraikitzekeo prozesua.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2002-2009 eperako Nafarroako errepideei buruzko plan zuzendarian jasota dago Azagrako saihebidia egitea, 2008an hasita.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zein egoeratan dago Azagrako saihebidia eraikitzekeo prozesua?

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihebidetzeko prozesua buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihebidetzeko prozesua buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2002-2009 eperako Nafarroako errepideei buruzko plan zuzendarian jasota dago Mendabiako saihebidetza egitea, 2008an hasita.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zein egoeratan dago Mendabiako saihebidetzeko prozesua?

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari

Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariari idatziz erantzuteko:

Osasun Sistema Nazionaletik nahiz foru administratibotik hitz egiten denean farmazia-gastu publikoa jaisteko politikak ezartzeaz, besteak beste ari dira sendagai generikoen kontsumoa areagotzeaz, Europako batez bestekoaren pareko merkatu-kuotara iritsi arte.

Nafarroako Europako mailak ezartzera jo behar du sendagai generikoak agintzeari dagokionez: Alemanian %53,7koa da, Kanadan % 45koa, Danimarkan % 65koa, Herbeheretan % 51koa...

Zein izan da azken lau urteotan Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaera?

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak idatziz erantzuteko:

Horra administrazio publikoak aintzat hartu beharreko alderdietako bat: osasun arloan kalitate

maila altuekin lan egin ahal izatea. Administrazio publikoak oro har eta autonomia erkidegokoak bereziki kalitate maila onargarriak lortu behar dituzte, publikoak ez diren beste osasun-zerbitzu batzuek eskain ditzaketenen aldean.

Nafarroan esan daiteke, harrokeriatan hasi gabe, profesionalek ematen dituzten zerbitzu gehien-gehien kalitatea oso asebetegarria dela, baina susmoa dut hori norbanakoen profesionaltasunaren ondorioa dela, Osasun Departamentuak darabilen lan-ildoarena baino gehiago.

Parlamentari honek ez daki osasun zentro publikoen, ospitaleen eta Departamentuaren menpeko gainontzeko zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko eredurik ote dagoen, albo batera utzita Nafarroako Ospitaleko Odol Bankua, Legebiltzarreko eztabaida baten kariatara jakin baikenuen kalitatearen ebaluazioa egiten dutela han.

Galdera hauei erantzutea nahi dut:

Ba al dago osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat espresuki ezarria?

Ez baldin badago, ba al dago asmorik ebaluazio-eredu hori ezartzeko?

Iruñean, 2008ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlanari buruzkoa.

• Zer urrats egin dira kontusail hori bete eta betearazteko?

• Urratsik egin ez baldin bada, noiz hasiko da aipatu kontusaileko azterlana egiteko beharrezkoa den izapidea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Comptos Ganberako lehendakariaren ebazpena, 2008ko ekainaren 11koa, erakunde honen zerbitzupeko langile funtzionarioen eta langile kontratatuen erosahalmena ordainsari osagarrien bidez euste aldera.**

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

«Comptos Ganberako idazkari nagusiaren eta administrariaren txostenetan jasotzen denez, erakundeak dituen langile funtzionarioen eta langile kontratatuen erosahalmenari eutsiko zaio ordainsari osagarrien bidez, 2007ko KPlaren ondorioz galdutako erosahalmena orekatzeko. Hori horrela, kontu-hartzaitzak aldeko txostena eman ostean, eta Comptos Ganberako Langileen Batzordeari informazioa emanda eta hari entzun ondoren, lehendakaritza honek

EBATZI DU:

**Lehena.** Erakundearen plantilla organikoa aldatzea 2008ko urtarrilaren 1etik aitzina; hartara, igo egingen dira hasieran aurreikusitako ordainsari osagarriak. Honenbestekoa izanen da igoera: A maila, %5,80; B maila, %5,20; C maila, %4,50 eta D maila, %4,10. Xedea da 2007ko KPlaren desbideraketa orekatzea eta erakundearen diharduten langileen erosahalmenari eustea.

**Bigarrena.** Ehuneko horiek lanpostu-osagarriaren bitartez gauzatuko direla xedatzea, auditoreen eta idazkari nagusiaren kasuan izan ezik; lehenbiziko kasuan, osagarri berariazkoaren bitartez egingen da, eta bigarrenari dagokionez, arrisku bereziko osagarriaren bidez. Ehuneko horiek, etorkizunean, lekualdatu ahalko dira Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan sor litekeen ordainsari-kontzeptu berri batera.

**Hirugarrena.** Horretarako, Ganberak ekitaldi honetarako duen aurrekontuan kontusail berri bat sortzea baimenduko da, "1.121.12108 Arrisku bereziko osagarria" deiturikoa, hain zuzen; kontzeptu hori erakundearen plantilla organikoan sartuko da 2008rako.

**Laugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, horren berri izan dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde



## Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako arartekoaren bulegoak eginiko Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten bereziaren berri izan duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Aipatu txostena Foru Araubideko Batzordearen bilera batean aurkez dadin xedatzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia, Nafarroako arartekoaren bulegoak egina

### AURKIBIDEA

- I. Aitzinsolasa eta txostenaren helburua (17. or.).
- II. Txostena egitea. Toki Administrazio Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren jarrera (18. or.).
- III. Nafarroako kontzejuak eta eskumenak, indarrean dagoen antolamenduaren arabera (20. or.).
- IV. Kontzejuak eskumenak betetzeko arazoak eta haien eragina administrazio publikoaren jardunaren printzipioetan eta herritarren esku-bideetan (21. or.).
- V. Eskumenak berregituratzeko proposamena (22. or.).
- VI. Ondorioak eta iradokizunak (24. or.).

### I. AITZINSOLASA ETA TXOSTENAREN HELBURUA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.c) artikularekin bat, arartekoak "legediaren hutsunak ikusarazi eta gomendioak eman" ditzake, "administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezen eta herritarren eskubideak modu eraginkorrean berma daitezten". Gomendioak Parlamentuari helarazten ahal dizkio, eta baita erakundeak ikuskatzen duen edozein erakunde publikori ere.

Agindua Espainiako Konstituzioko 103. artikularekin lotu beharrean gaude. Haren arabera, "Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez".

Zalantzarik gabe, toki administrazioari ere aplikatu behar zaizkio Konstituzioko aginduak antolamenduari eta funtzionamenduari buruz ezartzen dituen printzipio orokorrak. Horrexen adierazgarri da Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea ere. 1. artikuluari jarraiki, Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioa, autonomia, partaidetza, deskontzentrazio, eraginkortasun eta koordinazio printzipioen arabera, Foru Legeak berak dioenarekin bat antolatu behar da interes publikoak kudeatzeko, herritarrek konfiantza izan dezaten harengan. 317.2. artikuluari jarraiki, berriz, Nafarroako toki erakundeek erabat men egin behar diote legediari eta zuzenbideari, eta ekonomia eta eraginkortasun printzipioen arabera jardun behar dute.

Printzipio horien guztien argitan, herritarrek azken urteotan hainbat kexa aurkeztu dituztela eta alor honetan esperientzia lortu dugula kontuan hartuz, egoki iritzi diogu, arartekoari egokitutako eginkizunen esparruan, geure kabuz lan egin eta indarrean dagoen antolamendua aldatzea iradokitzeari, Nafarroako kontzejuen eskumenei banaketa-ritzi dagokionez.

Izan ere, berriki, kexa baten kariatara, arartekoak udal batekin mintzatu zen, eta udalak jakinarazi zion arazoak daudela Nafarroan udalerrri elkartuak izatearen ondorioz, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak kontzejuer zerbitzu publikoak eman beharra ezartzeari dago-kionez.

Bestalde, 2001aren eta 2008ko apirilaren 1aren artean, 37 kexa helarazi dizkigute kontzejuen aurka. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari igortzen dizkieten kexa asko bezala, garrantzitsuena ez da kexen kopurua, azaltzen dituzten arazoak baizik. Kontzejuen aurkako kexa gehienek diotenez, toki erakundeek ez dute ahalmen nahikoa herritarren arazoak konpontzeko eta helarazten dizkieten beharrei erantzuteko.

Gure iradokizuna da kontzejuak eginkizun gutxiago izatea, udalen mesedetan, udalak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea antolatzeko

oinarrizko toki erakundeak diren aldetik, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 2. artikulua erekin bat.

Eskumenak berriz banatzeko proposamenaren abiapuntua da ohartu garelara, hein handi batean, Nafarroako kontzejuek nekez betetzen ahal dituztela bere eginkizunak modu eragingarri, arduratsu eta objektiboan eta, horren ondorioz, herritarrek aukera gutxiago dutela zerbitzu publiko egokia eman diezaieten.

Txostenaren helburua ez da inolaz ere toki erakundeotako (kontzejuetako) langileen jarduna kritikatu edo txarrestea, Foru Komunitateko toki esparru juridikoa hobetu egin dadin bultzatzea baizik, Espainiako Konstituzioak administrazio publikoaren jardunari ezartzen dizkion printzipioen eta indarrean dagoen antolamenduak herritarrei onartzen dizkien eskubideen ikuspegitik.

## **II. TXOSTENA EGITEA. TOKI ADMINISTRAZIO DEPARTAMENTUAREN ETA NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN JARRERA**

### **1. Txostena egitea**

Hasiera batean, aholkularien laguntzaz, arartekoak gomendio orokor bat proposatu zuen Nafarroako kontzejuen eskumenei buruz.

Geroago, 2008ko urtarrilaren 16an, gomendioaren zirriborroa Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio kontseilariari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariari igorri zion, haien iritzia bildu eta haien iruzkinak, iradokizunak eta alegazioak aztertu nahian. Horiek guztiak aurkezteko epearen amaiera egunzat 2008ko otsailaren 11 finkatu zuen.

Hasierako helburua zen, iruzkinak bildu eta aztertu ondoren, gomendia behin betiko bihurtu eta bi erakundeei (Departamentuari eta Federazionarioari) helaraztea, egoki zeritzoten bezala erabil zezaten. Halaber, Nafarroako Parlamentuari gomendioaren berri eman eta gomendia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko asmoa genuen, guztiek izan zezaten haren berri.

2008ko otsailaren 8an, Toki Administrazio Departamentuak egindako txosten bat hartu genuen, eta Departamentuak bere jarrera eta proposamenak eragindako iruzkinak azaldu zizkigun.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren txostena, berriz, ez genuen garaiz hartu. Hala ere, 2008ko otsailaren 18an, arartekoaren aholkulari nagusia eta aholkulari tekniko bat Federazioko idazkari nagusiarekin eta aholkulari batekin bildu ziren. Geroago, martxoaren 31n, behin alegazioak

aurkezteko epea amaitu eta gero, haien txostena hartu genuen.

Alegazioak eta gomendio orokorraren edukia eta norainokoa ikusirik, formatua berriz aztertu genuen, eta egokiago iritzi genion mailaz goititu eta txosten berezi bihurtzeari, Nafarroako Parlamentua izan zedin hartzailea azkenean.

### **2. Toki Administrazio Departamentuaren txostena**

Toki Administrazio Departamentuak honako hau egiaztatu zuen Nafarroako kontzejuen egoerari dagokionez:

1. Kontzejuek zailtasunak dituzte bere eskumenak eta eginkizunak modu objektibo eta eragingarrian betetzeko, antolamendua eskasa dela eta oso hurbileko gauzei buruz erabaki behar dutela eta.

2. 1990etik, oso kontzeju gutxi (29) desagertu dira bere kabuz. Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legea indarrean sartu zenean, berriz, 87 kontzeju desagertu ziren automatikoki.

3. Departamentuak ahalegin handia egin du aurrekontuaren eta baliabide informatikoen aldetik kontzeju gehienetako kontabilitatea informatizatze-ko -353 daude guztira-, 1. atalean aipatutako zailtasunak "nolabait leuntze" aldera.

4. Kontzejuak "aldian behin" Departamentuarekin eta udalekin elkarlanean aritzen direla-eta, eta Departamentuaren beraren "etengabeko" aholkularitzari esker, "kontzejuek bere eskumenak eskas betetzearen kalteak txikiagoak dira eta, aldi berean, lasaitua hartu dute, gehienek nork bere nortasunarekiko karrari eutsi eta protagonismoa galarrizi edo kentzeko proposamenei aurre egin baitiete".

Arartekoak Departamentuari helarazi zion proposamenari dagokionez, berriz, zera adierazten du txostenak:

1. Nafarroako arartekoa gaituta dago legez ekimen hau guztia sustatzeko.

2. Foru erakundearen ekimena koherentea eta egokia da eta Toki Administrazio Departamentuak hasitako hausnarketa prozesuarekin bat dator; izan ere, "Nafarroako Foru Komunitateko toki administrazioaren antolamendu administratibo eta funtzionala berregituratzeko azterketa" egiteko sustatu du gogoeta Departamentuak.

3. Arartekoak eskumenak berregituratzeko proposamena egin du eta, era berean, Departamentuak kontzejuetako administrazioa nork bere kabuz berrantolatze prozesuak sustatzen ditu. Proposamena eta prozesuok bat datoz; hainbestearino,

funtsean, arartekoaren proposamena Departamentuak udalei eta kontzejuei aholkatzen dizkien elkarlan hitzarmenen proposamenekin bat dator. Tokian tokiko bestak, kontzejuetako artxiboak eta ondarearen ustiapena eta erabilera arautu eta antolatzea kontzejuen esku uzten ditu berariaz hitzarmen ereduak.

Departamentuaren txostenak aipatzen du proposamenaren aurkako eragozpen edo oztoporik ere:

1. Arartekoaren ekimena mugatua da, kontzejuen eskumenak bakarrik aztertzen baititu. Departamentuak hasitako azterketaren ikuspegia, berriz, zabalagoa da eta, horrenbestez, haren proposamena da arartekoaren ekimena Departamentuak aldi berean sustatutakoan txertatzea.

2. Arartekoaren ekimena mugatuta gelditu daiteke eta arazoak ekar ditzake. Batetik, arazo ekonomikoak ekar ditzake, ez baitizkie esleitzen kontzejuei eskumen bakoitzari zegozkion baliabide ekonomikoak eta ez baitu ezartzen finantzazio sistema berri bat, udalek baliabide nahikoak izan ditzaten lehen kontzejuak zituzten eskumenak betetzeko. Bestetik, arazoak eragin ditzake erakundeetan baita; izan ere, sarri askotan, udalek ere ez dute eskumen guztiak kudeatzeko ahalmen nahikoa, eta litekeena da kontzejuak baino are egoera ekonomiko okerragoan egotea, kontzejuak baino ondarezko baliabide gutxiago baitituzte oro har.

Toki Administrazio departamentuak arartekoari adierazitako espiritu konstruktibo eta adeitsu eskertu beharrean gaude ezinbestean. Funtsean, hiru ondorio atera zituen: a) arartekoak egindako proposamena Toki Administrazio Departamentua zenbait udalerrri elkartutan egiten ari den proposamenekin eta sustapen lanarekin bat dator ia erabat eta, hortaz, ezin erran daiteke gure proposamena zentzugabea denik; b) gure proposamena ez litzateke izan behar eskumenen araubidea aztertzea bakarrik; eta c) gure ekimena ezin hobeto txertatzen ahal da Departamentuak Nafarroako toki administrazioaren berrantolaketa administratibo eta funtzionalari buruz hasitako gogoetan, eta txertatu egin beharko litzateke.

Lehen eragozpenari dagokionez, egia erran, gure proposamena partziala da, eta legediak kontzejuei egokitzen dizkien eskumenak bakarrik aztertzen ditu, baina gure asmoa ez da hasieran finkatutako helburua gainditzea, eta ezta Nafarroako toki esparruak nolakoa izan behar duen lantzea ere.

Bigarren eragozpenari dagokionez, berriz, iruzkin ekonomikoa da argi eta garbi eta, gaia zenba-

teko ekonomikoari buruzkoa denez gero, instrumentala da aurrez hartu beharreko erabakiaren aldean. Ezin hobeto ebatz daiteke baliabideak kontzejuen eta udalerrri elkartuen artean banatzeko formulen bidez, eta foru administrazioa teknika-riek luze eta sakon planteatu eta azter ditzakete formulok, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntzaz, egokien irizten diotena proposatzeko.

### **3. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren txostena**

Txostenak adierazten du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa helarazitako proposamenaren kontrakoa dela. Batetik, Nafarroako arartekoaren eskumenen esparrutik kanpo omen dago gaia, administrazioak, erakundeak eta aginteak zalantzan jarri eta balioestea ez omen baita haren eginkizunetako bat; bestetik, proposatutako gomendioak toki arau esparrua eta kontzejuak beraiek aldatzea omen dakar, haiek ia batere eskumenik gabe uztea proposatzen omen baitu eta ez omen baitakar neurri zehatzik kontzejuen funtzionamenduari buruz, proposamenari eusteko.

Arartekoa ez dago ados Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iritziarekin. Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.c) artikulua argi eta garbi dioenez, arartekoak "legediaren hutsuneak ikusarazi eta gomendioak eman" ditzake, "administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezen eta herritarren eskubideak modu eraginkorren berma daitezen". Erakundeak sortu zenetik, azken zortzi urteotan hartu dituen hainbat kexari esker, esperientzia handia eskuratu du, eta ezinbestean jabetu da kontzejuak hala-hola funtzionatzen dutela eta, horren ondorioz, herritarrek aukera gutxiago dutela administrazioa eraginkorra izateko; alabaina, Espainiako Konstituzioko 103. artikulua eskubide horixe aitortzen die. Kontzejuen funtzionamendua eskasa izanen ez bada, haiei buruzko legedia halabeharrez aldatu behar da, kontzejuen funtzioak berregituratze aldera. Hain zuzen ere, 16.c) artikulua egokitzen dizkion eskumenen esparruan, horixe iradoki du arartekoak, txosten berezi honen bidez.

Are gehiago, gogoan izan behar da Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamentuak (Nafarroako toki erakundeak arautzen dituen legedia aldatzeko ekimenak sustatu eta bideratzeko organo eskudunak), onartzeaz gain arartekoak ahalmen eta eskumena duela txosten berezi honetako iradokizunak eta gomendioak bezalakoak egiteko, jo duela haren ekimena koherentea dela Departamentuak alor honetan sustatutako hausnarketa prozesuarekin, eta harekin bat datorrela.

Bestalde, Nafarroako arartekoari buruzko Foru Legeko 1.1. artikuluekin bat, Nafarroako arartekoa Nafarroako administrazio publikoen jarduna ikuskatzeko Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, kasuz kasu ez ezik, baita ikuspegi orokorra eta baterakoa izanik ere. Era berean, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 11. eta 46. artikuluekin bat, Nafarroako Parlamentuak eskumena du toki administrazioan eragina duten legegintza ekimenak sustatu eta onartzeko, are gehiago Foru Komunitateak bakarrik arautzen dituen erakundeen esparruan. Horregatik, zentzugabea da Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria eskumenik ez izatea iradokitzeko legediaren hutsuneak betetzea, edo legedia herritarren mesedetan hobetzea, baita bere kabuz eta bere iritzira ere.

Auziaren mamiari dagokionez, txostenak inolaz ere ez du iradokitzen kontzejuak desagertzea, ezta berezko izaera kentzea ere –alde horretatik, ez dakigu zein den kontzejuen “berezko izaera”–; aitzitik, gure iradokizuna da kontzejuen eskumenak bestela egituratzea eta haien zati bat (onartu beharra dago, zati handi bat) Espainiako Konstituzioak ezartzen duen toki erakundeari (udalei) esleitzea, ahalmen tekniko handiagoa duela eta XXI. mendeko gizarte modernoak aldarrikatzen dituen eskakizunei erantzuteko. Hau da, arartekoak ez du aldarrikatu kontzejuak deuseztatzea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak leporatu zionez, kontzejuak antolamendu ezberdin eta eskumen esparru txikiko toki erakunde bihurtzea baizik, berezko nortasun juridikodunak. Areago, litekeena da zenbait urteren buruan eskumenak itzuli behar izatea kontzejueri, baina badirudi egokiago dela orain udalen esku egon daitezen.

### **III. NAFARROAKO KONTZEJUAK ETA ESKUMENAK, INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUAREN ARABERA**

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak dioenez, udalak dira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea antolatzeko funtsezko toki erakundeak, baina onartzen du Nafarroan badirela bestelako toki erakundeak, hala nola, kontzejuak.

Kontzejuak erakunde tradizionalak dira, eta foru araubide juridikoari men egin izan diote. Hots, Nafarroako eskumen historikoen esparruko gaia da hau, Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46.1.a) artikuluen arabera.

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 37. artikuluekin bat, kontzejuak udalerrin baten barneko toki erakundeak dira, harenak baino biztanleria eta lurralde txikiagoak, berezko

ondasunak eta nortasun juridikoa dituztenak nor bere interesak kudeatu eta administratzeko, Foru Legeak berak egokitzen dizkien eskumenen esparruan.

Alegia, kontzejuak lurraldeko toki erakundeak dira, aukeran sortzen direnak eta udaletatik bereizitak, eta Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak egokitzen dien autonomiaren jabe. Kontzejuen autonomia desberdina da udalen autonomiaren aldean eta, horrenbestez, ez dira Espainiako Konstituzioko 137. artikulua bermatzen duen erakundeetako bat, udalak ez bezala. Dena dela, legeak egokitzen dizkieten eskumenen esparruan, udalen ahalmen eta eskumen berberak dituzte.

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 37.2. artikuluekin bat, kontzeju izateko, beharrezkoa da kontzejuan bizi direnen kopurua 15etik gorakoa izatea eta, gutxienez, hiru familia izatea. Gainera, kontzejuak osatzen duen udalerrin egon behar dute erroldatuta kontzejuko biztanleak.

Legez ezartzen diren toki erakundeak diren aldetik, hau da, foru legegileek sortzen dituzten toki erakundeak diren aldetik, foru legegileek beraiek zehazten dituzte haien eskumenak eta ahalmenak. Gaur egun, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 39. artikulua arautzen ditu, eta zera xedatzen du:

“Kontzejuetako kudeaketa eta administrazio organoei dagokie honako alor hauetako eskumenak betetzea:

- a) Ondarea administratu eta kontserbatzea eta haren ustiapena eta erabilera arautu eta antolatzeari.
- b) Kontzejuen barrutiko landa bideak eta kontzejuari bakarrik dagozkion erabilera eta zerbitzu publikoko ondasunak kontserbatu, mantendu eta zaintzea.
- c) Hirigintza baimenak ematea, plangintzarekin bat, Udalak nahitaezko txosten loteslea egin ondoren.
- d) Karrika garbitzea.
- e) Karrika argizatzea.
- f) Hilerrak kontserbatu eta mantentzea.
- g) Kontzejuetako artxiboak.
- h) Tokian tokiko bestak.

Kontzejuko erkidegoari bakarrik dagozkion lanak egin eta zerbitzuak eman kontzejuak berak egin eta eman ditzake, bere kontu, udalek egin edo ematen ez badituzte.

Halaber, udalek eta Nafarroako Gobernuak haien esku uzten dituzten eskumenak ere betetzen ahal dituzte kontzejuek.”

Legezko aginduaren kariatara, honela sailkatzten ahal dira kontzejuen eskumenak:

a) Berezko eskumenak. Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak zuzenean egokitutakoak dira, lehentxeago aipatutako gaietarako buruzkoak.

b) Udalek deus egin ez eta haien lana nork bere gain hartzeagatik eskumenak, hala nola, kontzejuko erkidegoari bakarrik dagozkion lanak egin eta zerbitzuak ematea, nork bere kontu.

c) Kontzejuen esku uzten diren eskumenak. Udalek eta Nafarroako Gobernuak haien esku uzten dituztenak dira. Horretarako, udalek eta Nafarroako Gobernuak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 27. artikulua bete behar dute, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 30.1. artikulua ezartzen dituen mugen esparruan; hots, kontzejuek oniritzia eman behar dute eta kontzejuen berezko interesetan eragina duten lan edo zerbitzuak utzi behar dira haien esku, kudeaketa publikoaren eragingarritasuna hobetu eta herritarren parte hartzea handiago izateko moduan, baina hirigintza arloko eskumenak inolaz ere ezin dira utzi haien esku.

Edonola ere, bertzeren esku uzten diren eskumenez ari garela, aipatzekoa da ohikoena alderantzizko egoera dela, alegia, kontzejuek udalen esku uztea bere eskumenak betetzea. Horrek guztiak adierazten du kontzeju gehienek ez dutela ahalmenik bere kabuz kudeatzeko Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak egokitzen dizkien eskumenen gaiak.

#### **IV. KONTZEJUEK ESKUMENAK BETETZEKO ARAZOAK ETA HAIEN ERAGINA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN JARDUNAREN PRINTZIOETAN ETA HERRITARREN ESKUBIDEETAN**

“Udalen mapa” delakoari dagokionez batez ere, jakin badakigu zer-nolako arazoak dakartzan toki erakunde txiki asko izateak. Toki administrazio bakoitzak dagozkion eskumenak bere gain hartzeko, minifundismoak ezin ukatuzko oztopoak eragiten dituela erran izan da eta, horren ondorioz, ezinbestean, administrazio publikoak nekez bete ditzake bere eginkizunak behar bezain modu objektibo eta eragingarrian.

Kontzejuak arazoaren adierazgarri garbiak dira. Maiz, oso-oso erakunde txikiak dira, eta ez dute giza baliabide eta baliabide material egokirik legez ezarri-

tako egitekoak betetzeko. Alde horretatik, antolamendu juridikoak interes orokorra babesteko egokitu dizkienez gero, egitekook nahitaez bete behar dituzte, uko egin gabe, baina ez da inolako ausarkeria erratea behar baino kontzeju gehiagok ezin dituztela hartu bere gain behar bezala dagozkien eskumenak.

Egoera askotariko faktoreen ondorio da eta, era berean, faktoreok halako administrazio publikoak hain txikiak izatearen emaitza dira. Alegia, aurrekontuak ez dira egokiak dagozkien funtzioak betetzeko; ez dute giza baliabide profesionalik; oso hurbileko gauzei buruz erabaki behar dute; etab.

Ildo berean, bertze faktore bat da parte hartzea oso txikia dela kontzeju gehienetako hauteskundeetan, eta horrek adierazten du halako administrazio publikoaren jardunak oso interes gutxi pizten duela herritarrengan.

Errandako guztiaren adierazle, hona hemen zenbait datu:

1. Nafarroako Kontzejuetako populazioaren zifrak, 2006ko urtarrilaren 1ari dagozkionak, ofizialtzat jotzen dituen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren otsailaren 22ko 59/2007 Foru Aginduaren arabera, 60 udalerrri elkartu daude Nafarroan. Hain zuzen ere, Nafarroako 272 udalen % 22 udalerrri elkartuak dira.

2. Foru Aginduak dioenez, 355 kontzeju daude. Hau da, kontzeju gehiago daude Nafarroan udalak baino.

3. Biztanle kopuruaren arabera, honako hau da kontzeju guztien sailkapena:

- 1.000 biztanletik gorakoak: 1 (Zizur Txikia, 1.160 biztanlekoa)

- 500 eta 1.000 biztanle artekoak: 6 (Arre, 934 biztanlekoa; Olatz, 781ekoa; Artika, 765ekoa; Arrada, 547koa; Ororbia, 533koa; eta Berriobeiti, 514koa).

- 300 eta 500 biztanle artekoak: 12 (Antzin, NARBarte, Figarol, Asterain, Badoztain, Eugi, Zubiri, Ezkirotz, Aratzuri, Tiebas, Aitzoain eta Berriogoiti).

- 100 eta 300 biztanle artekoak: 78.

- Gainerakoetan (257 kontzejutan) 100 lagun baino gutxiago bizi dira, eta 161etan, ezta 50 ere.

4. Biztanle gehieneko kontzeju gehientsuenak Iruñearen eraginpeko eremuan daude. Berez, kontzejuak baino gehiago, azken bizpahiru hamarkadetan sortutako bizitegien urbanizazioak dira.

5. Biztanle gehien galtzen ari diren kontzejuak, eta biztanle kopuru txikienekoak, mendialdean daude.

6. Kontzejuen eta udalen kopuruak handiegia dirudi 600.000 biztanleko eta 10.000 km<sup>2</sup> pasatxo-ko lurraldearen aldean. Comptos Ganberak ere adierazi zuen Nafarroako toki erakundeen kopurua handiegia zela, 2008ko martxoan, Nafarroako toki sektore publikoaren 2005eko egoera ikuskatzeko egin zuen txostenaren bidez; izan ere, 815 toki erakunde daude guztira, mankomunitateak eta bestelako erakundeak barne, kontzejuez eta udalez gain.

7. 2000 eta 2005 artean zortzi kontzeju desagertu dira; egia erran, zortzi kontzejuak 2000 eta 2005 artean desagertu ziren.

Auzi horrek guztiak ezin eztabaidatzeko desabantailak dakartza, Espainiako Konstituzioarekin eta Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearekin bat, Nafarroako toki erakundeen jarduna arteztu behar duten printzipioak eraginkorrak izateko.

Lehenik, eraginkortasun printzipioaren kontra-koa da argi eta garbi; hari jarraiki, administrazio publikoek zuzen eta zehatz-mehatz bete behar dituzte bere eginkizunak, herritarren eskubideak bermatzeko. Eraginkortasun printzipioa aldarrikapen espezifiko bat da, administrazioak bere helburuak lortzeko lan egiteko gaitasuna izan dezan, eta baita eskakizun espezifiko bat ere, helburuak lortu egin ditzan, emankorra izan dadin.

Bigarrenik, kolokan dago eraginkortasun edo ekonomia printzipioa betetzen ote den, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeari eta, hartara, administrazio publikoek lan egin ahal izateari dagokionez. Hari jarraiki, helburu bakarra lortzeko aukera guztien artean, gastu gutxien sorrarazten duena hautatu behar da.

Hirugarrenik, objektibotasun printzipioa ere arriskuan dago. Administrazio publikoak objektibotasunez erantzun behar die interes orokorrei eta, horretarako, inolako alderdikeriarik gabe jokatu behar du, eta bere legezko aginpidearen peko gaitetik urrun egon nolabait.

Azkenik, baliabide nahikorik ez izatearen ondorioz, zailagoa da legezatasun printzipioa (legedari eta zuzenbideari bete-betean men egitea) betetzea. Hari jarraiki, administrazio publikoek antolamendu juridikoak ezartzen dizkien ahalmenak erabili behar dituzte.

Azkenean, egoera horrek guztiak herritarren eskubideei egiten die kalte, eta arartekoak babestu behar ditu, administrazio publikoak ez dienez gero behar bezala erantzuten legez agindu dizkion funtzioei.

## V. ESKUMENAK BERREGITURATZEKO PROPOSAMENA

Aipatutako arrazoi guztiak direla medio, zentzuzkoa da arartekoak legedia aldatzeko iradokitzea, eskumenak udalen eta kontzejuen artean banatzeko modua berregituratzearen eta, azkenean, herritarrei eman behar zaizkien zerbitzu publikoek hobeto funtziona dezaten.

Erran bezala, abiapuntuak izan behar du udalak hartzea Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea antolatzeke oinarritzko toki erakundetzat, eta herritarrek kontu publikoetan parte hartzeko bide nagusitzat, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 6. artikularekin bat. Kontzejuak, berriz, aukeran sortzen dira eta bertzeren mende- an daude eta, hori dela-eta, kontzejuei eskumenak egokitzeko arrazoi bakarra da interes publikoak hobeto kudeatzea hartara, herritarrei zerbitzu eraginkorragoa ematea eta herritarrek gehiago parte hartzea dagozkien erabakietan.

Alabaina, arartekoaren ustez, indarrean dagoen antolamenduaren arabera esparruak ez dio erantzuten eskakizun horri eta, horregatik, aldaketa jakin batzuk egin beharko liriteke. Aldaketak bi oinarri ditu:

1. Kontzejua babestea, Nafarroako erakunde tradizionala den aldetik, baina Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak egokitzen dizkionak baino eskumen gutxiago izatea. Hartara, kontzejuek beraiek eta haien ondarearen eta kulturaren balioak iraun eginen lukete, eta udalei egokitu litzaizkieke ez ondarearekin eta ez kontzejuen kultura edo historiarekin zuzeneko zerikusirik ez duten zerbitzu publikoak emateko eskumenak, baliabide gehiago dituztela eta.

2. Udalak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea antolatzeke oinarritzko toki erakunde gisa sustatzea eta, horretarako, haien eskumenak areagotzea (gaur egun kontzejuen dauden zenbait haien esku uztea), hobeto egokitu daitezkeelako Espainiako Konstituzioak ezartzen dituen printzipioetara, handiagoak direnez gero.

Proposamenari jarraiki, kontzejuen eskumenak honako hauek bertzerik ez liriteke:

a) Kontzejuen ondarearen ustiapena eta erabilerara arautu eta antolatzea.

b) Kontzejuetako artxiboak.

c) Tokian tokiko bestak.

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak zuzenean toki zerbitzuekin lotuta aipatzen dituen gainerako eskumenak (kontzejuen ondarea administratu eta kontserbatzea, landa bideak kon-

tserbatzea, zerbitzu publikoak ematea, hirigintza baimenak ematea, karrika garbitzea, karrika argizatzea eta hilerriak kontserbatzea) udalek beteko lituzkete. Izan ere, erran bezala, ahalmen handiagoa eta baliabide gehiago dute horretarako

Azken batean, arartekoaren proposamena da, bertzerik gabe, Nafarroako zenbait udalerrri elkartuk (Toki Administrazio Departamentuak iradokitako lankidetzak hitzarmenaren eredia sinatu dutenek) eskumenak banatzeko erabili duten eskema behin betiko bihurtzea.

Ikusten denez, eskumenak berregituratzea da kontua eta, arartekoaren aburuz, zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzea ekarriko luke horrek, jakin baitakigu kontzeju askok eta askok ez dutela gaitasun nahikorik gaur egun legez dagozkien eginkizunak behar bezala betetzeko.

Hots, kontua ez da inolaz ere kontzejuak Nafarroako toki erakunde gisa deuseztatzea, baizik eta, batetik, haien baliabide ekonomikoen eta materialen eta giza baliabideen eta, bertzetik, XXI. mendeko gizartean bizi diren herritarrei bermatu behar dizkieten eskumenen arteko harremanaz hausnartzea.

1.000 biztanletik beherako udalek nekez betetzen dituzte legez dagozkien eskumenak. Ildo horretan, guztiz ezinezkoa da biztanle eta baliabide gutxiagoko eta lurralde txikiagoko 350 kontzejuak halakorik egitea, norik bere esparruan.

Udal eskumenak batu eta elkartzeko aldera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa ahalegin handia egiten ari da azken 25 urteotan eta, hori dela-eta, ez dirudi desegokia denik zera iradokitzea, kontzejuen zenbait eskumen (gutxienez, herritarrengan ondorio nabaria dutenak) oinarritzko toki erakunde (udalen) esku uztea.

Hartara, kontzejua udalaren barneko toki erakunde izanen litzateke, eta ondarea, kontzejuko artxibo historikoa eta bestak administratu eta kudeatzeko eskumena luke. Udaleko auzo bat baino gehiago litzateke, berezko izaera eta nortasun juridikoa bailuke, eta ez litzateke desagertu beharko.

Jabeen erkidegoak, auzoak eta mendiak batera kudeatzeko erakunde tradizionalak ditugu. Hortaz, ez dago arrazoi sendorik kontzejuak a radice deuseztatzeko.

Jakina, eskumenak berregituratzeko, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legea eta, bereziki, 39. eta 319.4. artikulua aldatu beharko lirateke; hurrenez hurren, kontzejuari dagozkien eskumenak mugatu eta, hirigintza baimenak kontzejuak eman behar dituztenerako, administrazioa-

ren isiltasuna arautzen dituzte. Halaber, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 191. artikulua ere egokitu beharko litzateke, hura ere kontzejuak hirigintza baimenak emateari buruzkoa denez gero.

Hain zuzen ere, hirigintza baimenak emateko eskumena udalei egokituko balitz, askoz azkaragoa izanen litzateke hirigintzaren kudeaketa, eta horrek, dudarik gabe, interesdunei egiten lieke mesede. Izan ere, kontzejuari baimen bat eskatzeko egungo sistema oso konplexua da eta, gainera, kontzejuak itxita egoten dira sarri askotan: hainbat kopia aurkeztu behar dira, kopia bat udalari helarazi behar zaio, udalak aldeko txostena egin behar du, txostena kontzejuari igorri behar zaio eta, azkenean, kontzejuak hirigintza baimena ematen du. Bere garaian, legegileek arrazoi bakarra zela medio eutsi zioten sistema horri, baimenak lortzeko ordaindu beharreko tasak ez galtzeko kontzejuak, baina hirutariko kaltea egin zuten hartara: udalei, eskumenik izan ez baina haiek ematen baitute egitez baimena –egin behar duten txostena nahitaezkoa eta loteslea da– eta, trukean, ez baitute tasarik kobratzen; kontzejuari, udalen mendean egon behar baitute eta ematen dituzten baimenen balioa formal eta ekonomiko hutsa bertzerik ez baita; eta herritarrei, administrazioaren konplexutasunari, are atzerapen handiagoei, bi administrazioekin harremanetan egon beharri eta administrazio bakarra izanen balitz ordaindu beharko luketen tasa bera ordaindu behar izateari aurre egin behar baitiote.

Kontzejuen baliabide ekonomikoei dagokienez, eskumenen banaketaren aldaketa onartu egiten balitz, erran dugu jada lehenengo erabaki egin beharko litzatekeela, eta gaia gero aztertu; alegia, baliabideek ezin dutela baldintzatu erabakia. Lehenik, eskumenak berregituratzea erabaki beharko litzateke, eta, ondoren, aztertu guztietan zer formula egokitzen den hobekien udalerrri elkartuen eta kontzejuen arteko harremanen eredu berrira. Behinik behin, horixe egin dute toki erakunde guztietan, Nafarroan ez ezik, baita Espainian ere: toki esparru orokorra eta batzuen eta bertzeen eskumenen esparru orokorra finkatu dute lehenbiziko, eta ondoren, erakunde bakoitza finantzatzeko modua. Alde horretatik, gomendioaren lehen zirriborroa egin genuenean, bide bat proposatu genuen, hainbat artean. Hari jarraiki, kontzejuak bi funtsetatik eskura litzakete baliabide ekonomikoak: bata udalaren esku legoke, eta udalak barne transferentziak egiten litzakete kontzejuari, haien beharra arrazoitu ondoren, eskumenak erabil zitzaizkan; eta bertzea Foru Komunitatearen esku legoke, udalak kontzejuak kontserbatzen laguntzeko.

## VI. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK

### 1. Ondorioak

Lehena. Kontzejuak Nafarroako toki erakundeak dira, eta foru legegileei esker existitzen dira, haiek mugatzen baitituzte kontzejuen eskumenak eta ahalmenak. Udalak, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea antolatzeke oinarrizko toki erakundeak eta herritarrek kontu publikoetan parte hartzeke bide nagusia dira, eta Espainiako Konstituzioak haien autonomia bermatzen du.

Bigarrena. Arartekoaren ustez, gaur egun indarrean dagoen eskumenen banaketa (Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 39. artikulua ezartzen duena) ez dator bat Nafarroako ia kontzeju guztien benetako egoerarekin, ez baitute baliabide nahikorik legez dagozkien eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko.

### 2. Iradokizunak

Hori guztia ikusirik, Arartekoari buruzko Foru Legeak egokitzen dizkigun eskumenen esparruan, egoki iritzi diogu iradokitzeari indarrean dagoen esparru juridikoa (Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 39. eta 319.4. artikulua eta Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 191. artikulua) aldatzeko, eta udalen eskumenak sendotzeko.

Zehatz-mehatz, honako hau da gure iradokizuna:

Lehena. Kontzejuei honako alor hauetako eskumenak egokitzea:

- a) Kontzejuen ondarearen ustiapena eta erabileraren arautu eta antolatzea.
- b) Kontzejuetako artxiboak.
- c) Tokian tokiko bestak.

Bigarrena. Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak egokitzen dizkien gainerako eskumenak udalek betetzea, toki zerbitzuekin lotuta baitaude argi eta garbi.

Hirugarrena. Toki esparruko eskumenak berregituratu eta, Nafarroako erakunde tradizional diren aldetik, kontzejuei eustea, baina haien eskumenak haien izarira egokitu eta kontzejuek honako eskumen hauek soilik izatea, lehen erran bezala: onda-

rea kontserbatzea, kontzejuko artxibo historikoa kudeatzea eta tokian tokiko bestak antolatzea.

Laugarrena. Eskumenak berriz banatzearen aurkako eragozpen ekonomikoak berregituraketari buruzko erabaki nagusia hartu ondoren aztertzea, aurrez Nafarroan (lehenik, 1990ean, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legea eta, gero, 1995ean, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legea eman zutenean) eta Espainian egin izan den bezala. Alde horretatik, hainbat bide daude kontzejuak finantzatzeko, eta egokiena aukeratzea kontu instrumentala eta antolamenduzkoa baino ez da, Toki Administrazio Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko zerbitzu teknikoak entzun ondoren.

Txosten honetako ondorioak eta gomendioak Comptos Ganberak 2008ko martxoan Nafarroako toki sektore publikoaren 2005eko egoera ikuskatzeko egin zuen txostenekoen ildotik datoz. Zehazki, zera gomendatu zien Ganberak agintari publikoari txosten haren bidez:

– “Legegintza eta administrazio arloan lehentasunez eta berehala hartzea beharrezko neurriak Nafarroako toki administrazioaren gaur egungo egoera arrazoizkoa izateko, toki administrazioak modu eragingarrian erantzun ahal izan diezaien XXI. mendeko herritarren beharrei eta horretarako finantza baliabide nahikoak izan ditzan. Nafarroako gizarte osoak eta agintari publiko guztiek parte hartu behar dute neurriok hartzen eta, horregatik, adostasun handia lortzen saiatu behar da eredu berria finkatzeko, herritarren borondatea eta interes zilegiak babestuz betiere.”

– “Toki erakundeei buruzko arau esparruko xedapenak osatzea, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen bitartekoak eta mekanismoak izan ditzaten toki erakundeek eta, hartara, bere baliabideak eraginkortasun handiagoz kudea ditzaten. Horretarako, administrazioaren eredu berria diseinatu behar da Nafarroako toki erakundeen askotariko antolamendua (tamaina, baliabideak eta giza baliabideak) kontuan hartuz, arauzko eskakizunetara egokitze aldera. Halaber, indarrean dagoen legediak Foru Komunitateko toki sektoreko administrazioa arrazoizkoagoa izateko xedatzen dituen neurriak ere hartu behar dira, zerbitzuak hobeto emateko toki esparruan.”